

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/2/1 | 377

- 🌀 Eider Olazar Elduaien eta Manex Izagirre
- 🌀 Bidean: Euskal euria atertu!
- 🌀 Zapla!, euskarazko komiki fanzinea
- 🌀 Ikasle txokoa: Ume inuxente hura



Loatzo Musika
Eskolak 10 urte

- 🌀 Hauspoa elkartarekin solasean

TXOOOOOOOOTX!



AUTOCARES
Aizpuruak

info@autocares-aizpuruak.es
Tel.: 943 36 32 90
www.autocares-aizpuruak.es

LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin
egindakoa

Autobus zerbitzua
Hernanitik!



Maiatzak 5 rte
irekita!

Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46

SUPEREKO
Zerbitzua eta kalitatea

Zure Tolosaldeako Super-a,
orain OnLine



<http://www.supereko.net>

Erosketak etxera eramango dizkizugu
Eskerrik Asko

JANTZIAK
OSKI
oiñetakoak

3 hilabetetik 16 urte arte

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefona: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



Erreportaia:
Loatzo Musika Eskola

Loatzo Musika Eskolak 10 urteko ibilbidea egin du. Hastapenak, egungo egoera, etorkizunerako erronkak ezagutu asmoz Zizurkilen kokaturiko egoitzara egin du bisita Galtzaundik. Ainhoa Elizondo eta Iñaki Zalakain irakasleek musika eskolaren berri eman dute.

8-11. orrialdeak

Ibarrako kultur bitzita sustatzeko 1998tik lanean musu-trukari den Hauspoa elkarteko Jaione Bengoetxea lehendakariarekin eta Onintza Aranalde diruzainarekin elkartu gara, hamabost urteotan egindakoa ibilbideaz eta etorkizunerako dituzten erronkez mintzatzeko.

Elkarriketa: Hauspoa elkarte

14-16 orrialdeak

🌀	Iritziaren leihoa: Eider Olazar Elduainen eta Manex Izagirre	4-5
🌀	Adineko pertsonen zaintzaileak euskaraz	6-7
🌀	ANIMA/abestera!	12-13
🌀	Bidean: Euskal euria atertu!	17
🌀	Kultura: Zapla!!, euskarazko komiki fanzinea	18
🌀	Ikasleen txokoa: Ume inuxente hura	19

Iraultza feminista izango da, edo ez da izango



Eider Olazar EIduaien
Tolosaldeko Bilgune Feminista

“Emakumeok, ez gaituzte militante politikotzat ikusten. Militante politikoaren bikote edo maitale bezala ikusten gaituzte”. Hala zioten orain gutxi “Emakumea eta kartzela” gaitzat hartuta Bilbon egindako mahai-inguruan parte hartu zuten hainbat euskal preso politiko ohiek, emakumezkoak guztiak.

Egungo gizarteak (sistema patriarkalak) emakumei ezarritako balore eta rolen arabera ez da aurreikusten emakumea “delitugilea” izatea, ezarritako ordenaren aurka joatea, alegia. Gizonek ordea, gailentzen den ereduaren baitan, beraien damate agresibitatea eta balentria, ondorioz, beren izaera naturalarekin bat dator “delitugilea” izatea, horrela, zigorra jaso behar dutela ulertuz. Hortik abiatuta, egungo espetxe sistemaren baitan ez dator bat emakumeek konpromiso politiko bat, konpromiso publiko bat hartzea eta ondorioz, “delitugile” izatea. Hortik, kartzelak gizo-

nezkoentzat (gizonezko eredu jakin batentzat) diseinatutako lekuak izatea, ez delako aurreikusi emakumeen presentzia bertan eta ondorioz, emakumeentzat ez-leku bilakatzen dira, horrek dakarren guztiarekin. Espetxe sistemaren arabera, eta espetxe sistema egungo gizartearen ondorio bezala ulertuta, antolakuntza politiko batean militatzen duen emakumeak bere bikotekideak bultzatuta egiten du, edo antolakuntza horretan emakumeari ezarritako rol bat betetzeko sartu da: gehienetan, zerbitzu sexualak eskaintzeko. Emakume militantea hortaz, objektu hutsa da, gizon-

batek bere beharrak asetzeko erabiliko duen objektua. Entzun besterik ez daude bisa bisetarako bidean emakume presoek funtzionarioen ahotik entzun behar izaten dituztenak. Emakume subjektua erabat desagertu da buru horietan. Hori da funtzionarioen ondoren egindako mobilizazioetan gizonezkoak, gizonezko kurduak izan zirela kalera protestan atera zirenak. Nekez topatu zitezkeen emakumeak. Baina eraildakoak emakumeak ziren, ardura zehatzetan zeuden emakumeak eta isilpeko lana egiten ari zirenak, bai kanpora baina baita etxe barrura begira ere. Besarkada bat bidali nahiko nieke bestelako jendarte eredu baten alde lanean ari diren emakume militante politiko guztiei, dela alderdi dela sindikatu egituretan dabiltzanei. Horien guztien lanak emango baititu fruituak. Iraultza feminista izango baita, edo bestela, ez baita izango. ☺

Emakume militante askok erroka bikoitza du aurrean, irauli nahi duen egoera politiko-sozialari generoarena gehitzen baita. Eta askotan ez da erraza norbera-

ren lekua topatzea eta eroso egoetea sinesten duen borroka bikoitz horretan. Baina nola izan gaitzke guztiz aske gure generoagatik desorekan aurkitzen bagara? “... batek gose diraueno ez gara gu asetuko, bat loturik deino ez gara libre izango”.

Sistema patriarkalak bere atzapar ilunena erakutsi du orain gutxi Estatu frantsesean: hiru emakume militante kurdu hil dituzte tiroz Parisen, Kurdistango Informazio Zentroan. Sakine Cansiz (55 urte), PKK Kurdistango Langileen Alderdiaren emakume sortzaile bakarra; Fidan Dogan (32 urte), KNK Bruselan egoitza duen Kurdistango Kongresu Nazionalaren Frantziako ordezkaria; eta Leyla Soylemez (24 urte) militante gaztea dira hildakoak. Hiru belaunaldi desberdin. Hirurak emakume, kurdu eta militante izateagatik erailak. Ez dut uste kasualitatea denik hirurak emakumeak izatea. Ez dut kasualitateetan gehiegi sinesten, egia esan. Atentzioa eman zidan, gertakari lazgarriaren ondoren egindako mobilizazioetan

gizonezkoak, gizonezko kurduak izan zirela kalera protestan atera zirenak. Nekez topatu zitezkeen emakumeak. Baina eraildakoak emakumeak ziren, ardura zehatzetan zeuden emakumeak eta isilpeko lana egiten ari zirenak, bai kanpora baina baita etxe barrura begira ere. Besarkada bat bidali nahiko nieke bestelako jendarte eredu baten alde lanean ari diren emakume militante politiko guztiei, dela alderdi dela sindikatu egituretan dabiltzanei. Horien guztien lanak emango baititu fruituak. Iraultza feminista izango baita, edo bestela, ez baita izango. ☺

Erosi, erosi berria!

Orain gutxi ordenagailu eramangarriaren kablea hondatu zitzaidan. Berezi xamarra zenez konpondu asmoz profesional batengana jo nuen. Burdindegi bat, elektronika denda bat eta elektrizitate denda bat pasa nituen eta hiruretan erantzun bera jaso nuen: *ez dakigu nola konpondu*. Izan zen esaldi magikoa bota zuenik ere: *baina berriak oso merke dituzu!*

Baina ez, nire burugogorkeriari jarraituz eta interneten laguntzarekin berriro martxan jartzea lortu nuen.

Gabonetako oporrak probestuz, berriz, garajea pilatuta zegoen amonaren zutikako lanpara zaharrari konponketa batzuk egin eta pintura pixka bat eman genion. Orain moda-modako *vintage* lanpara bat daukagu etxean. Eta ez pentsa inolako jenioa izan behar denik horrelako *lantxoak* egiteko.

Mugikor berria, telebista berria, arropa berria, auto berria... behar izaten ditugu. Baina behar al ditugu benetan? Ala behar hori sortu egiten digute? *Compror, tirar, comprar* dokumentalak argi azaltzen digu baietz, kontsumitzea beharrezkoa zaigula.

Kontsumoan oinarritzen da gure ekonomia. Ahalik eta gehien produzitu, ahalik eta lanpostu gehien sortzeko, ahalik eta kontsumitzeko gaitasun gehien izateko, ahalik eta gehien kontsumitzea... Zirkulu honek horrela jarraituko luke mugarik ez balu. Baina gure planetaren baliabide naturalak finituak dira eta behin



Manex Izagirre
Gaztea

Hori konpondu baino hobe duzu berria erostea. Merkeago aterako zaizu berria erostea zaharra konpontzea baino. Zaharkitua dago, berria askoz ere hobea da. Erosi berria. Erosi berria. Erosi. Erosi. Zenbat aldiz entzun ditugu honelako esaldiak?

amaituz gero ez dago erreku-peratzerik.

Krisiak erakutsi dizkigu bestetik sistema honen hazkunderaren mugak. Eta ondorioak pairatu dituztenak langileak eta enpresari txikiak izan dira. Orain egoera honi buelta emateko zer egin jakin ezinik gabiltza. Murrizketak batetik, eskubideen murrizketak. Eta hauen alternatiba lanpostua sortzean omen datza, hau da, produkzioa indartzean, hau da, kontsumoa bultzatzean...

Baina orain artekoa bezalako kontsumoa bultzatu nahi al dugu? Ez al genuke produkzio eredu ere aldatu behar? Hitz handiak akaso gure txikitasunean, eta gure immobilitasunaren justifikatzeko aitzakia

askotan.

Nondik has gaitzke? Bada esaterako zerbait erosi aurretik geure buruari galdetuz ea benetan behar dugun. Jabetzaren gainean dugun kontzeptuak denok denetik izatera eramaten gaitu. Ezin al gaitzke bizi gutxiagorekin? Eta zergatik ez erosi produktuak kolektiboan? AEBtako pelikuletan ikusten dugu esaterako bizilagun guztien artean garbigailu gutxi batzuk konpartitzen dituztela.

Non erosten dugun ere kontutan hartzekoa da. Saltoki handietan eta marka handiei erosteko joera gero eta handiagoa daukagu. Hain merke saldu ahal izateko pentsatu al dugu nondik datozen produk-

tuak? Zenbat irabazten ote du Indiako haur batek Zara markarentzat galtzak josten?

Eta berrerabilpenaz ahaztu gabe: hondatzen zaiguna konpontzen saiatuz, behar ez duguna trukatzu eta Tolosako garbigunera joanez gero berrerabilpen gune bat aurkituko dugu!

Ziur esandakoarekin ados gaudela gehienok, baina prest al gaude benetako sakrifizio bat egiteko? Prest al gaude gutxiagorekin bizi gaitzkeela aitortzeko? Prest luxuak utzi eta bizimodu xurrik ez omen du inork beretzat eta bai besteentzat. Ni neroni saiatzen hasia naiz, zuek ikusi zer egin. ☺

Adineko pertsonen zaintzaileak euskaraz

6 Tolosako Udalaren, Banaiz Bagara elkartearen, Tolosaldea GLHBIren eta Emun Kooperatibaren elkarlanetik abiatuta, adineko pertsonen zaintzaileei zuzendutako ikastaroa martxan jarriko da. Ikastaroaren helburua profesional hauek, euskarara gerturatzea da, zaindu beharreko pertsona horien hizkuntzara, alegia. Zaintzaileek eta adineko pertsonak batera aritu ahal izango dira aipatu ikastaroan.



Erredakzioa

Adineko pertsonen egunerokotasuna errazagoa bilakatzeko lan egiten duten profesionalen arduen artean higiene, elikadura, botikak, laguntza fisikoa... bezalakoak daude. Zaintza horretan gertutasunak ordea erabateko papera betetzen du; adineko

personaren eta zaintzailearen arteko komunikazioa ezinbesteko puntua da. Adineko pertsonari bere ohiko hizkuntzan aritzea, are garrantzitsuago bilakatuz.

Horregatik, Iñaki Irazabalbeitiak, Tolosako Udaleko Hizkuntza politika eta Hezkuntza

saileko zinegotziak, honako ekimena "hizkuntza politikan sakontzeko beste urrats" gisara definitu du. Ikastaroaren erroa duela bi urte, legealdien hasieran kokatu du udaleko ordezkariak: "analisi egin eta saiatu ginen detektatzen Tolosako euskararen normalizazioan dituen beharrak". Behar horietako bat kanpotik etorri eta Tolosan bizi eta lan egiten duten pertsonak eus-

karara gerturatzea dela jakinarazi du Irazabalbeitiak. Lan arloak identifikatu eta iaz Banaiz Bagara elkartearekin batera lehenengoz tabernetan aritzen ziren kanpotar profesionalak euskarara gerturatzeke saiok antolatutako Tolosako Udalak. Aurtengoan ordea adineko pertsonak zaintzen dituzten profesionalen alorrean eragin nahi izan da.

Ikastaroaren nondik norakoak

Banaiz Bagara elkartearen Petra Elser-ek ikastaroaren nondik norakoen berri eman du. Ikastaroaren hartzaileak adineko pertsonak berak eta hauek zaintzen dituzten profesionalak dira. Izan ere, honako ikastaroaren berezitasuna enplegatzailea eta enplegatua elkartzean datza: "bakoitzak bere behar eta egoerak ditu eta adineko pertsonak bere eguneroko bizitzan bere ohiko hizkuntza mantentzea bizitza kalitatearen faktorea da", dio Petra Elser-ek. "Aukera eman nahi diegu zaintzaileei euren lan orduetan, adineko pertsonen batera euskarara ikasi eta praktikatzeke".

Ikastaroa otsailaren 25ean, 10.00-12.00 bitartean hasiko da. Astean bi orduko bi saio eskainiko dira, guztira doaneko 14 saio. Zaintzan beharrezkoak diren elkarriketa errazak irakatsiko dira baina baita hizkuntza berriekiko

sentitzen den deserosotasuna gainditzeko ere. Era berean, intuizioa erabiliz ulertzen, egoeraren arabera hitz egiteko modua egokitzen erakutsiko diete parte-hartzaileei.

Ikastaroko irakasleak Emun Kooperatiba eta Banaiz Bagara elkartearen ordezkariak izango dira. Proiektuak gainera, Tolosaldea GLHBI institutuaren babesarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikasmina Herriz Herri proiektuaren baitan kokatzen da. "Ikastetxetik eskualde mailan jasotzen diren prestakuntza beharrei erantzuna ematea da proiektuaren helburua", azpimarratu du bertako ordezkari Gemma Zelaia.

Izena emateko

Ikastaro doanekoa bada ere, izena ematea beharrezkoa da: Tolosaldea GLHBIrekin (943 651147 edo ikasekin@tolosaldea.com) edo Banaiz Bagarekin (943 331455, 645

733818 edo ninaizgugara@gmail.com) harremanetan jarri.

Gaia gizarteratzeko mahai-ingurua

Honetaz gain, Petra Elser-ek jakitera eman bezala, ikastaroa hasi aurretik, otsailaren 19an, arratsaldeko 19.30ean, Tolosako Kultur Etxean, "Hizkuntzaren garrantzia adineko pertsonen zaintzan" mahai-ingurua eskainiko da. Gaia ikuspuntu ezberdinetatik lantzeko asmoz ondorengo hizlariak parte hartuko dute: Xabier Mendiguren Bereziartu; Garbiñe Petriati (Hizkuntza Eskubideen Behatokia), Tolosako Udaleko gizarte zerbitzuetako ordezkaria eta adineko pertsonen zaintzan esperientzia duen Matia Fundazioko ordezkaria. ©

*Irakurle Taldea.
Otsaileko tertulia*
Eguna: otsailak 14, osteguna
Ordua: 19.30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea
*Irakurri beharreko liburua:
"Atzerri"
Mikel Antza*

Mahala
bertan elaboratutako
esneki eta txerriki
natural naturalak
www.mahalanaturala.com | 943 67 07 24

CDI
Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAX: 943 653 916

IGO
Karga eta goi lanetarako grua
www.igogrua.com
Mobil zkia. 670 67 24 62

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

R A K U
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

Loatzo Musika Eskola Hamarkada batez, herriz-herriz musika irakasgai

Loatzo Musika Eskolak 10 urteko ibilbidea egin du. Hastapenak, egungo egoera, etorkizunerako erronkak ezagutu asmoz Zizurkilen kokaturiko egoitzara egin du bisita Galtzaundik. Ainhoa Elizondo eta Iñaki Zalakain irakasleek musika eskolaren berri eman dute.

Naiara Roldan de Aranguiz

Loatzo Musika Eskola egun denaren errealitatea ezagutzeko, ezinbestez sortu aurrerako garaietara jo beharra dago. Anoetako eta Villabonako Musika Eskolek bidea ireki zioten egungo Loatzo Musika Eskolari. Ainhoa Elizondok eta Iñaki Zalakainek orduko egoera ondo ezagutzen dute. Izan ere, Loatzo bera sortu aurretik ere musika eskolan aritzen ziren honako bi irakasleak; Ainhoa Elizondo Anoetakoa eta Iñaki Zalakain Villabonakoan.

Hastapen horietan ere, ikasleen gurasoek, instituzioez gain paper garrantzitsua bete zutela zalantzarik ez du Ainhoa Elizondok: "musika eskolaren eta mankomunitatearen sorreran gurasoak oso ausartak izan ziren. Proiektu berria izateak beti zalantzak eta kezkek sortzen ditu baina haiek aurrera egiteko apustua luzatu zuten".

Loatzo Musika Eskola berezia egiten duen elementua mankomunitate izaerarena da. Hasieran, 2002an, hiru he-

rriren babesarekin sortu zen Loatzo Musika Eskola. Ibarra, Anoeta eta Zizurkil herrien asmoz abiatu zen mankomunitate izaeradun proiektua. Gerora, izaera horri esker beste bost herri batu dira musika proiektura. Egun zortzi herrik osatzen dute Loatzo Musika Eskola: Alegia, Aduna, Anoeta, Irura, Ibarra, Villabona eta Zizurkil.

Baina finean mankomunitate izateak zer suposatzen du? Iñaki Zalakainek erantzuna luzatzen du: "irakas-

leak herriz-herriz mugitzen gara, ikasleak ez dira euren herriatik mugitzen musika klaseak jasotzeko -talde instrumentalen kasua salbu-. Asmoa hori da, ikasleak bere herrian bertan musika ikasi ahal izatea. Gainera, mankomunitatea sortzearekin batera, musika-tresna eskaintza askoz zabalagoa bihurtu zen, herri bakoitzean tresna kolore ezberdin asko ikusten da". Ainhoa Elizondok, beste hitz batzuekin ere azaltzen du mankomunitatearen esanahia: "herri bakoitzak bere musika eskola txikia dauka eta denen artean osatzen dugu handi bat".

Are gehiago, mankomunitate izateak bestelako onurak ere ekartzen ditu Iñaki Zalakainek ustetan, musika eskola bilgune bihurtzen baitu: "ikasleak talde instrumentaletan biltzen dira -bandan, orkestran-. Herri ezberdinetatik etorri eta bertan elkartzen

dira; ez ezagutzetik harreman berriak egitera. Guztiak ezagutzea, konpartitzea, musika egitea... ekartzen du".

Hamar urte hauetan Loatzo Musika Eskolak aldaketa ugari jasan baditu ere, nabarmenetako bat ikasle eta irakasle kopuruan eman da. 250 ikaslerekin hasi eta egun 615 ikasleri musikaz ikasteko eta gozatzeko baliabideak eskaintzen dizkie Tolosaldeko musika eskola honek. Irakasle kopurua ere, 14koa izatetik 20ra igo da hamarkada batean. Urte hauetan guztira zortzi ikasle bideratu ditu Loatzo Musika Eskolak Musika Kontserbatoriora, hau da, musikako bide profesionale-ra. Gainera, txararantzen parte hartzen duten musikariek gain hainbat talde eta bakarlarik sortu dira Loatzoko erroetatik. Lain eta Kantuki taldeak edo Jone Otxoa bakarlaria adibideak baino ez dira.

Klaseak eskaintzeko gu-



neak ezberdinak izan dira urte hauetan zehar; hastapenetan, ikastetxe eta ikastetok erabateko garrantzia izan bazuten ere, egun bost herrietan egoitza propioa du Loatzo Musika Eskolak. Al-

daketak ikasle zein irakasle kopuruetan, egoitzetan emateaz gain, alor pedagogikoak ere bere bilakaera jasan du. Ainhoa Elizondok eta Iñaki Zalakainek azaldu bezala, "asmatzea tokatu zaigu". "Pe-

dagogikoki musika euskaraz ikasi ahal izateko gure liburuak, gure materialak, sortu ditugu. Beharrezko arabera sortu dugu behar genuen materiala", azaldu du Iñaki Zalakainek.



ohiko ekitaldiei programa berezia gehitu zaie. Ainhoa Elizondok eta Iñaki Zalakainek gertutik ezagutzen dute, 10. urteurren ospakizun lan-taldean murgildurik baitaude.

Festa ospakizunei hasiera eman zitzaizen iragan urtarri-laren 25ean, ostiralean, Ibar-rako ekitaldi instituzionala medio. Bertan, hamar urte-tan zehar Loatzori lagundu dioten norbanako eta erakundeak bildu ziren alkate, zinegotzi, guraso, ikasle eta irakasleak, besteak beste. Hamar urteko historia kontatzeko musika eta bertsoak ez ziren falta Ibar-rako ekitaldi instituzionalean.



Izan ere, irakasle biek azaldu bezala, Loatzo Musika Eskolaren finantziazioa alor publikoan oinarriturik dago eta horrek diru-laguntzen baitan kezka sortu izaten du. Loatzo errealtate izateko ezinbestekoa da babes instituzionala, "politikoak ez badira bustitzen, garbi dago proiektuak ezin duela aurrera egin", dio Iñaki Zalakainek.

Legediari begiratuta, finantziazioari dagokionez, herenen proportzioa da agintzen duenak. Hau da, Eusko Jaurlaritzari finantziazioaren herena dagokio, proiektuan parte hartzen duten udaletxei bigarren herena eta azkenik ikasleen gurasoei hirugarren herena. Errealtatea ordea, bestelakoa da, bi irakasleen esanetan: "Eusko Jaurlaritzak ez du betetzen bere herena, ez da iristen ezta %20ra, horregatik eskualdeko udaletxeek diru gehiago jarri behar dute".

Gauzak honela, Loatzo Musika Eskolak luzatzen duen eskakizunetako bat "Eusko Jaurlaritzak bere hitza betetzea" da.

Honetaz gain, egunero-egunero errepikatzen zaigun krisi kezkarri hitza Loatzo Musika Eskolan ere ageri da. Ainhoa Elizondok kontatu bezala, krisialdiak bere eragina izan du eskualdeko musika eskolan ere: "gurasoek asko apuntatzeko orduan; ez da bakarrik matrikula ordaintzea, instrumentua ere erosi behar da. Lehen nahiz eta seme-alabak klaseak gehiegi aprobetxatu ez, gehiegi ikasi ez, apuntatzen jarraitzen zuten hurrengo ikasturtetan ere, orain ikusten da etxetik hori mozten ari direla". Iñaki Zalakainek langileen egoerari ere erreferentzia egiteko aprobetxatu nahi izan du: "soldata igoerarik ez dugu, pagarik ez...".

Hala ere, ezin zalantzatan jarri Loatzo Musika Eskola egitasmoaren etorkizuna. Ainhoak eta Iñaki argi dute behinik behin. "Gure erronka nagusia martxa honetan jarraitzea da ikasleak zainduz eta motibatuz", dio Iñaki. Ainhoak ondorengo gaineratzen duela: "proiektua sendotzea da gure nahia. Hamar urte bete ditugu, guri asko iruditzen zaigu baina musika eskola baten gutxi da, gaztea da. Horregatik, beharrezkoa da babes eta errekonozimendu instituzionala, bai Eusko Jaurlaritzatik eta baita udaletxeetatik ere. Gu gure dinamika txertatzen jarraituko dugu herrietako kultur bizitzan oraingo bide berdinetik".

Horregatik, Ainhoa Elizondok eta Iñaki Zalakainek eskerrak emateko aukeraz probestu nahi izan dira: "eskerrak eman nahi dizkiegu sortzaile izan ziren udaletako ordezkariak, gurasoak, ikasleak eta musika eskolan aritzen diren eta ibili diren irakasleak ere".

Beti Alai
gaitasuna

Garaian garaiko janariak eta arraikiak bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

IG
GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

AHORA! abestera!

Kilometroak tolosarron ahotan AHORA leloa jartzea lortu du, leloaz mintzatu, eztabaidatu eta hausnartzeko bidea ere eskainiz. Aurrerantzean ordea, leloaz hitz egin baino abestu egingo da. Izan ere, ondorengo lerroetan jasotzen da Laskorain Ikastolak orain artean gordeta izan duen sekretuetako bat: AHORA kanta.

Naiara Roldan de Aranguiz

Inauterietan presente

Abestia inauterien etorrerarekin batera ezagutzera eman da. Izan ere, Tolosako Inauterietan, herriko festa nagusian, KMK13 presente egongo da. Euskal Herria plaza, txosna atzean KMK base nagusia bilakatuko da, Kilometroetako taberna eta jantokia bertan kokatuko baita. Proiektuari babesa eskaini nahi dionak beste gune bat ere topatuko du Tolosako Inauterietan, San Frantzisko pasealekuan, artxiboaren aurrean KMK13k tonbola muntatuko baitu.

Helburua, euskara AHORA


KMK13ren helburuarekin bat eginik AHORA kantak euskara bihotzetik ahora eraman nahi

eta lortuko du, horixe baita erroka eta egin beharreko bidea 2013ko ospakizunarekin batera. Kantak behin eta berriz AHORA mezuari erreferentzia egin eta leloa abesteko gonbitea egiten du: "ahora, ez daukagu aitzakiarik; ahora, burutik eta bihotzetik; hitz egiten ez bada nola ba bestela? Ahora Tolosa ekarri Euskara".

Kantak Tolosako soinuak jasotzeko nahia izan du; inauterietan, txarangak, abesbatzak, musika talde ezberdinak... Guztiak Tolosaren ordezkari izan baina kantak gazteen aldeko apustua luzatu nahi izan nahi du. Abestiarren egileak, letra zein musika aldetik, haiek baitira euskararen lekukotasuna dara-

matenak eta eramango dutenak musika euskarri hartuta. Letraren sortzailea Juantxo Arakama

da, musika arduradunak ordea Mikel Zelaia eta Jokin Albisua dira. Instrumentuen atzean Jokin Albisua, Alos Quartet eta Bonberenea Txaranga daude. Kantari ahotsa jarri diotenen zerrenda Juantxo Arakamak, Aritz Mendietak, Jone Otxoak, Natalia Garmendiak, Imanol Ubedak, Aiora Zulaikak eta Naiara Mintegiaren zuzendaritzapean Lasabesbatzak eta Laskorain ikastola abesbatzak osatzen dute. Karlos Osinagak teknikari lanak burutu ditu eta Xabier Zeberio produktore lanak egin ditu. Grabaketa Bonberenea estudioan burutu da.



Sortze lana, grabaketa orduak, edizio eta produkzio lanak talde lanaren emaitza dira; azken fruitua AHORA kanta izanik. Laskorain ikastolako ikasle ohiek, gaur egungo ikasleek, ikasle izan ez direnek, musika munduan aritzen direnek parte hartu dute abestia sortzen. Aurrerantzean ere KMK13 proiektua guztion talde lanarekin garatuko da Tolosan eta Tolosaldean AHORA kanta soinu banda duela.

AHORA
Ez daukagu aitzakiarik
AHORA
Burutik eta bihotzetik
AHORA
Hitz egiten ez bada nola ba bestela?
Ahora Tolosa ekarri Euskara
(bis)

Ai maitea zein ederra zure irudia
Zein xarmanta Tolosako lurra eta hiria
Mozorro eta konpartak, txarangak eta inauteriak
Zu zara makina bat artistaren sorterrria

Halere badaukagu zertan ikasia
Nagusi baita gure kaleetan erdara eta hori da egia
Ez da inork esan duen aurreneko aldia
Izan dadila azkena gure garrasia

Edan, beldurrik gabe edan maitea
Putzu sakon eta ilunetik ateratako ur gazia
Eraman ahora betiko botika berria
Euskaraz sendatzen da euskararen gabezia

AHORA...

Kilometroak! Kilometroak!

Momentua da! Momentua da!

Momentua da, badakigu nora
Kitatzera goaz daukagun zorra
Berreskuratzera galdutako ganora ta denbora
bihotzetik atera orain kanpora
Bazterretik esfera publikora
Eraman Euskera zure ahora

AHORA...

Gozotegia Okindegia
ECEIZA
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK
Korreo. 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

gizarte
kutxa

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04
BEOTIBAR INDUSTRIALDEA. 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

matilda
zure moda osagailu denda
Korreo Kalea, 3
Tolosa

Hauspoa, Ibarra herriaren arnas beroa

Ibarrako kultur bizitza sustatzeko 1998tik lanean musu-truk ari den Hauspoa elkarteak Jaione Bengoetxea lehendakariarekin eta Onintza Aranalde diruzainarekin elkartu gara, hamabost urteotan egindako ibilbideaz eta etorkizunerako dituzten erronkez mintzatzeko.

Felix Aiestaran



Urteotan Hauspoa elkarteak egindako lana dela eta, hainbat ekitaldi garrantzitsu ederki finkatu dira Ibarren. Iraileko Azokak Ibarren kale guztiak

bereganatzen ditu, Santa Ageda bezperan herriko baserriak zeharkatzean etxekoan esker ona jasotzea hunkigarria egiten zaie parte-hartzaileei eta herriarrek eskaintzen duten antzezpena ibarrek galdu ezin duten kultur hitzordua bihurtu da.

Hauspoa, herritar guztiei zabalik den Ibarra bizi baten alde lanean diharduen elkarte izanik, ekitaldi jakinetarako borondatezko laguntza zabala jasotzen duen arren, belaunaldi berriei lekukoa pasatzeko gogoa adierazi digute egungo arduradunek.

Zer da Hauspoa?

Hauspoa kultur elkarte da. Inolako irabazi asmorik gabe, Ibarra bizirik lelopean lanean diharduena. Ibarra herri txikia izan gabe ere, aldamenean herri handiagoa eta *potentea* duenez, herri bizia nahi badugu ekitaldiak prestatzea beharrez-

koa da. Elkarrekin sortu aurretik, jende asko ari zen lanean, baina koordinaziorik gabe; indar asko galtzen zenez, elkarlanean hobeto lan egiteko eratu zen Hauspoa.

Noiz eta nola sortu zen Hauspoa?

Lehen ere urte askoan aritu izan zen Kilima elkarte, baina desadostasunak izan zirela medio, bertan behera gelditu zen. 1998ko Kilometroak festaren baitan Ibarren antolakuntza zati bat egokitu zitzaion eta horretarako herriko jendeaz Hauspoa sortu zen. Oso ondo aritu ginen eta jendeak lanerako indar eta kemena zuela erakutsita, jarraitzea erabaki genuen. 2003an erregistratu genuen.

Zein ardura ditu lehendakariak?

Garai batean ez bezala, gaur egun fakturak eta paperak ondo egon behar dute eta lana izaten

da. Diru publikoa jasotzen dugu eta ekitaldi desberdinetarako izaten diren diru kontuak ondo agertu behar dira. Ekitaldi desberdinetako lagunek, gastu guztien fakturak ekartzeko ohitura hartu dute.

Edozein ekitaldi antolatzen duzuela ere erantzukizun handia izango duzue, ezta?

Bai, erantzukizun zibila betetzen duen aseguru dugu, Hauspoa kultur elkarte irekia izanik, aseguru horren barruan sartzen ditugu ekitaldi guztiak. Urtezaharreko krosa moduko ekimen berriak sortzen direnean, aseguruaren barnean sartu egiten ditugu. Hauspoaren asmoa jendeak kultur ekitaldiak egitea erraztea da, egitura bat eskainiz.

Zein ekitaldi antolatzen duzue?

Urtean zehar zortziren bat ekitaldi antolatzen ditugu. Hasieratik, urtero, behin izan ezik, egiten dugu.

gun antzezpenak indar handia du, baina ekitaldirik indartsuena Iraileko Azoka da. Babarrun Jana ere antolatzen dugu. Santa Ageda bezpera egunean jendea kalera ateratzen da, baina baserrietara ez zenez inor joaten gu hasi ginen bertsolari, trikitilari eta panderoarekin. Bidea iluntzean, argiak eskutan ditugula, egin ondoren baserriko sukalde barruan familia osoak hartzea oso gauza polita izaten da. Mahai gainean janaria jartzen digute, guk ez dugu dirurik eskatzen. Kaldereroak ere izaten ditugu. Aurten, tartean Korrika ere izango da eta gero San Juan sua arte nahiko lasai egoten gara. Herriko festetan herri antzerkia egiten dugu. Urte amaieran lehenbiziko aldiz egiten den Urtezaharreko krosak ere antolatzen jarraituko dugu.

Edozein herritar proposamen batekin etortzen bazaigu, entzun eta lagundu egiten zaio, egin nahi duena ahalbidetzeko.

Iraileko Azokak indar handia du, ezta?

Hasieratik, azokaren asmoa bertako produktuak ezagutzera izan da: barazki eta abereak. Bestetik, artisaun gunean eskulangintzaren berezko balioa azaldu nahi dugu, artisaunak bere gaiak nola lan egiten duten erakutsiz.

Hor txertatu genuen, piparra gaitzat hartuta, Xeplak antolatzen duen lehiaketa gastronomikoa. Bertan Ibarren piparra Euskal Herriko beste piparrekin batera azaltzen saiatzen gara. Iaz, Gernika, Ezpeleta eta Lodosatik etorri ziren. Urtero zerbait berria abian jartzen saiatzen gara eta azkenekoan, Ibarren sokatira taldekoak munduko

txapelidunak izanik, sokatik nola tira behar den erakusten aritu ziren.

Azokan postua jartzeko bertako izaten dute lehentasuna. Azoka asko hazi da eta denei ezin zaie baiezkoa eman. Izaskundik ekarritako euskal txerria buruntzian egina oso-osorik jaten da, pintxotan ordu erdi batean. Berrogeiren bat postu eta laurogeiren bat abelburu biltzen dira. Guretzat eromena da, lan bolumen handia duelako, baina merezi du kanpotik ere jendea etortzen dela ikusteak, gauza ederra da. Goizeko seietatik hogeiren bat lagun dena prestatzen aritzen gara.

Urtezaharreko krosak arrakasta handia izan zuen, ezta?

Proposamena jaso genuenean, beldur pixka bat sartu zitzaigun, Tolosan ere izaten da lasterketa eta. Guk irabazlerik gabeko lasterketa egin nahi izan dugu. Ez dago podiumik. Lehiaketa nahi duenak badu krosik Beasainen eta Tolosan ere. Partaidetzari dagokionez, 142 umek eta





110 helduek parte hartu zuten. Ikaragarriko giroa sortu zen: batzuk mozorrotuta, eskerrak eman zizkiguten... Herrikoek batera korritzeak badu bere grazia. Dominarik ez genuen eman nahi izan, baina Mattinek marraztutako elastiko dotoreak banatu genituen, umeen artean. Merkatariek emandako 31 opari lote zozketa ziren gainera.

Zein taldek parte hartzen du Hauspoan?

Kirol Elkarteak, Xeplak, Sendi Ekintzak, Aisialdi Elkarteak, Merkatariek, Ikastolak, Musika Eskolak, Alurr Dantza Taldeak, Misio Elkarteak, Koruak... Bileretara kultur zinegotzia eta kultur teknika bere borondatez etortzen dira eta horrek asko laguntzen digu. Bestetik, herritarrek ere bere kasa parte hartzen dute gure bileretan. Gaur egun, ia astero biltzen gara.

Zein da Ibarren berezitasuna Hauspoa moduko elkarrekin izateko?

Jendeak lan egiteko ilusioa du. Jende askok eta askok, musu-truk lan egiten du. Kalderoetarako, adibidez, trafikoa zaintzeko besterik gabe, hamabost lagun behar dira. Kide bakoitza jende berria ekartzen saiatzen da ekitaldi jakinetarako. Dirua kudeatu, Udalarekin gaiak lotu eta ekitaldietarako laguntzaileak lortu behar dira. Azken honetarako jendea prest dago eta asko eskertzen dute gure lana. Baina lana aurrera ateratzea kosta egiten dira, errepidea mozteko Diputazioari baimen berezia eskatu behar zaio... Tankerako lan ugari daude.

Tolosa horren gertu izateak zenbaterako eragina du?

Ibarrek badu halako pikea

Tolosarekin eta horrek motibatatu egiten gaitu. Herri bezala ekimenak egiteko gaitasuna badugu, denerako Tolosara joan gabe. Azoka egunean Tolosatik jende ugari inguratzen da, herri antzerkia ikusteko etortzen den bezalaxe, eta horrek jarraitzeko indarra ematen digu. Tolosan zerbait egiten bada, egutegia errespetatzen saiatzen gara egun berean Ibarren ere izan ez dadin.

Ibarra duela berrogei urte asko hazi zen... Ez al da populazio gaxtearen herria?

Hogeita hamar urte inguruko gazteak ez dira inguratu guregan, gazteagoak inguratzen ari zaizkigun bezalaxe. Ekitaldi jakinetarako, jendea prest dago: herri antzerkia egiteko berrogeiren bat lagun biltzen dira. Gidoiak Ritxi Lizartzak eta

Jexux Peñagarikanok egin izan dituzte...

Lan handia egin behar da, baina jendearen erantzunak aurrera egiteko lagundu egiten ditu. Kritika guztiak ez dira berdinak: inoiz kolpe zorrik bota ez duen bati, besaulkian eserita segi eta guri bakean uzteko esango diogu. Kritika besterik gabe, alternatibak behar ditugu. Aldamenean lanean ari denaren balorazioa gauzak hobetzeko kontuan izango dugu, noski! Autokritika handiegia dugu, batzuetan.

Ibarren Plazak, umez gainezka, giro handia izaten du egunero... Zer behar du Ibarrek bizitza handiagoa izateko?

Aterpe egokia behar du Ibarrek ekitaldiak antolatzeko. Kirolegia kirola egiteko da. Asteburuetan ez dago ezer; kultur etxea eta kiroldegia itxita egoten baitira. Ekitaldi asko egiten dira Ibarren eta estalkia alokatzeko oraindano gastatu denarekin, aterpe egokia egin zitekeen.

Etorkizunera begira zein asmo duzue?

Denok ditugu gure estilo eta bizioak... Gu lanean jarraitzeko prest gaude, baina gazteagoen erreleboa nahiko genuke, ekimen berriei hauspoa emateko. Mikrofonoarekin beti pertsona berak ez du egon behar, bera bakarrik dagoela ematen duelako. Hemen ez gaude protagonismoagatik, herria maite dugulako, baizik. Hauspoa kultur elkarte oso aprobetxagarria da, herriaren alde lan egin nahi duen guztiarentzat irekia. Krisi garaioan auzolana beharrezkoa da.



Lindozuloko uretan arraunean. Berastegiko San Sebastian ermita atzealdean

Prezipitazioak neurtzen diren-etik, aurtengo urtarilla inoizko euritsuena izateko bidean da gurean, 500 lm2 Añarbe urtegi inguruan, 500 mm edo metro erdiko altuera asko da, (urte hasieran belaunerainoko katiuskak jantzi izan bagenu eta igerileku huts batean geldi egon izan bagina Sansebastianetarako ura goialdetik sartzeko beste baten, hamar egun beranduago belauburitik gora, kalkulatu urte normal batean 1.700 mm inguru botatzen dituela gurean baina mar-txa honetan !!!).

Euria, kazkabarra, elurra...Eguraldi onarekin edonora eta eguraldi honekin nora?

Aurrekoetan mendi ibilbideak eta oinezko irteera laburrak aurkeztu izan ditugu hemen baino oraingoan ez naiz ausartzen ezer proposatzera. Kaleak putzu, errekek urez gainezka, ibaiak hazi-hazi eginda,

urtegiak topera beteta. Tolosaldeko errepideak ere egon dira tarteka itxita, urak hartu dituelako, luiziak gertatu direlako edo Leaburutik Gaztelurako bidean bezala zorua hondoratu delako.

Denboraleak ez du atsedenetik hartu, ur mailak gora egin du Oria ibaia arroan eta mendietan elur kotak behera, eurari urrutako elurren urak gehituz gero asunto txarra, uholdeak ez dira urruti izaten. 1953, 1983, 2013... kasualitatea litzateke, 30 urteko zikloak betetzen direla esateak ez du inongo arrazoi zientifikorik baina Tolosaldean bada nahiko zabaldua dagoen beste uste bat... Pertsona ugari sinesten du Orio aldean itsas gora denean gauzak okerrera egiten dutela hemen, horrelakoek ez dauka ez hanka ez buru baino tira... neguko "tenporak" zertan geratu ziren kontutan hartu eta pronostikoak egiteko ere "fede-



Josu Iztueta Azkue
Bidaiaria

Euskal Herriari Euskal Hiria deitu izan zaio inoiz, aurreko batean Euskal Euria askatu! irakurri nuen nonbait eta grazia egin zidan, hilabete honetan behintzat arrazoirik ez zuen falta.

Bidean Euskal euria atertu!

duna" izan behar da eta eszeptikook haserretu egiten gara.

Egunotako eguraldiak utzi ditu irudi ederrak eta ikusgarriak baino egoera hori bera askorentzat bel-durgaria eta kezkarria ere bada noski. Ez zaio zubiari gainezka egiten dion urari berdin begiratzen, etxeko egongelako berotasunetik edo garaje zulotik. Bota dituenak botata, hustu beharreko hodeia guztiak hustuta itsasoak ere gora egin duela dirudi. Ondorengo egunetan 150 km orduko haize harroak itsas bazterretan eta sei metroko olatu erraldoiak kostaldean... Hiztegiari, duela ez urte asko, "ziklogenesi" hitza ere gehitu genion, izena itzultzea fenomeno bera errepikatzea baino zailagoa litzateke eta bere horretan uztea onetsi da.

Aurreko batean (Galtzaundi 341. alean) Ibiurtegiaren itzulia oinez egiteko gonbitea luzatu genuen, oraingoan urtegi bera bisitatzea eta orain arte bete gabeko parajea ezagutzea da proposamena. Lehenbizikoz bere historia laburrean, betetze maila %100 izan da, urak gainezka egiten du eta urrutitik begiratuta presan bi oihal zuri erraldoi zintzilikatu dituztela dirudi. (Honez gero argazkiak ikusiko zenituzten).

Beste ur paisaiak ere badira Tolosaldean, hauek ez dira hain eza-gunak, gutxitan ematen direlako. Batzuetan hiruzpalau urtetik behin eta inoiz pare bat aldiz urtean. Berastegi herrian gertatzen da, han ibili ginen (Galtzaundi 357. alean),

Zelai errekarren ur mailak gora egiten duenean eliz atariko belardi asko ureztatuta geratzen da, arroz soro berde eta zabal baten itxura hartzen du berez polita den inguruak.

Aintzergako sakonunean ordea beste fenomeno bat gertatzen da, geomorfologia berezia du leku honetara. Baldintza normaletan harriz edo alandrez hesitutako belardiak eta han-hemenka dauden txalet, etxe, borda batzuk osatzen dute "postal" irudi zoragarria. Paisaia horretan mugitzen diren bakarrak ardiak larrean lasai-lasai eta A-15 autobidean presaka doazen ibilgailua dira.

Egunotan, Ipuliño mendi magaletik, GI-2130 errepidetik bestelakoa zen panorama, Lindozuloko parajek itxura ikusgarria hartu du berriro, putzu erraldoia sortu da, hektarea bateko azalera hor nonbait, botatako ur guztia ezin behetik drainatu eta urez betetzen joan da, gu egon garenean gainezka egin eta lur azalez Leitzaran ibaira zihonan ura... azpitik filtratzen denean bide bera egingo duela dirudi baino Araxes-era agertzen den ustea ere zabaldua dago inguruko jendearen artean... ☺



Zapla!!, euskarazko komiki fanzine

Zapla!! fanzinea bere laugarren alea mamitzen ari den honetan eskualdeko komikilari, marrazkilari, idazle, poetei dei egin die bere orrietako kolaboratzaile bihurtu daitezten. Aldizkariaren muina euskaraz landutako komikiak dira.

Naiara Roldan de Aranguiz

Gari Garitano argitalpenaren arduradunetako bat da eta berak proiektuaren berri eman dio Galtzaundiri. 2011ko irailean lehenengoz elkartu ziren Bergarako lau gazte, tartean Gari Garitano bera zegoela. Helburua euren lanak kaleratzeko euskarri bat lortzea zen: "inguruko aldizkarietan muturra sartzea zaila zegoenez, gure aldizkaria ateratzea erabaki genuen". Hurrengo pausoa marrazkilari eskeiragarkia jartzea izan zen. Bide honek 13 lagun elkartzeko aukera ahalbidetu zien. Bakoitza mundu ezberdinetik zetorren, bakoitzak teknika ez-

berdina garatuz baina guztiek argi zeukaten marraztea zela euren egitekoa.

Lanari ekin eta lehen zenbakia 2011ko Gabonetan kaleratu zuten eta baita ustekabeko emaitza jaso ere: "krisia gai bezala hartuta, espero ez genituen emaitzak jaso genituen", kontatzen du Gari Garitanok. Bigarren alea 2012ko Aste Santuarekin batera kaleratu zen, Gariren esanetan, komikien kalitatea eta tiradakopurua handiagotuz. Bigarren honetan ordea jasotako erantzuna bestelakoa izan zen: "belarrondokoa hartu eta etxera!".

Baina aldapari aurre egin eta Zapla!!-k ez zuen etsi, izan ere, iragan azaroaren 24an argitaratu du hirugarren alea, momentuz kaleratutako azkena. Azken honetan gainera, kanpoko kolaboratzaileak ugaritu eta euskararen presentzia murriztu egin da.

Egoerari berriro aurre hartu eta Gari Garitanok argi dauka Zapla!! euskarazko argitalpena izaten jarraitu behar duela. Horregatik, sortzaileak bildu eta aurrerantzean fanzinea %90ean euskarazkoa izatea ahalbidetu behar dutela erabaki dute: "bertako komiki bat euskaraz behar duelako".

Horregatik, laugarren alearen prestaketatan murgildurik dauden honetan, Zapla!!-k Gari Garitanoren ahotan Tolosaldeko sortzaileei dei egiten die euskarazko lanak sortu eta Zapla!!-n kaleratu ahal izateko. Laugarren alea udaberrian plazaratuko da eta kontzertu-jai batez ospatuko dute Bergaran martxoaren 16an.

Zapla!!-rekin harremanetan jartzeko bidea: zaplafanzinea@gmail.com

Zapla!! Aldizkaria Tolosaldean eskuragai: Ibarako Dannon Txokoa

Ume inuxente hura

1- Pertsona denon etorkizunak iragana denez sustrai haur nintzeneko pasadizoak oroitu ohi ditut alai: gabonetako opari lista, Sanjuan suaren sua, ai! Ze iragana, ze haurtzarora ta ze oroitzapen usai. Ze une gozo, ze garai, atzean utzi nahi ditut baino ez ditut inoiz ahaztu nahi.

2- "Aita ta amatan" jolasten ginen famili baten antzera zein erreza zen seme alabak ateratzea aurrera. Otordu denak prestatu eta haurrak eraman ohera, beste norbaitek joan behar zuen erosketak egitera. Garbitu hau, hori, zera... ta hala ere jolaserako denbora gendun gainera.

3- Ta eskolako txoko haietan ze oroitzapen, ze garai, dendari eta mediku izaten geneukan hainbeste dohai. Hamarretako txirrin hots harek jarri ohi ninduen alai eta gaur ere gustuko ditut txirrinaren hots ta usai... lehen bezala egoten naiz ai... orain ordea ateratzeko txirrinak noiz joko dun zai!

4- "Zenbat urtekin ezkonduko naiz?" egiten genuen salto baino guztia ze krudela den patio hartatik kanpo. Urteen joanak ez du barkatzen eta onartu beharko sokak lotura seinale dira gu guztion kalterako. Nahiz joan diren urte asko; nik uste nuen sokak zirela soilik sokasaltorako.

5- Milaka liskar mundu txikian petroleoa tarteko: pistola, bonba, tanke, armada, general eta sargento. Ta irakasleak guri esanaz ez inoiz alkar jotzeko, laguna gogor besarkatu ta barkamena eskatzeko. Hitz eginez konpontzeko; umeok hori ikasi gendun helduek baino hobeto.

6- Baina betiko haur izatera ez gatozenez mundura, gaintitu nuen haurtzarotikan bereizten gaituen muga. Non galdu ote da Olentzerogan sentitzen nuen lilura? Lehen jolas bat nuen bizitza konplexua bihurtu da. Ta begiratur ordura, izan nahi nuke behin izan nintzen ume inuxente hura.



Haritz Mujika
Orixe BHI

irakurri entzun ikusi

Ez naiz ni Karme Jaio

Zerbait falta dute, zer den ondo ez badakite ere. Gaztetasunaren azken izpiez gozatu nahi dute batzuek, lehengo garai ustez eder haiek berreskuratu; esperientzia berriak bilatuko dituzte beste batzuek, modu batean zein bestean, edo hondatzen hasitako harremanak biziberritzen saiatu. Bizitzaren erdialdean daude denak, eta horrek eragiten dien ezinegorean beren toki aurkitu nahi lukete.

Azula Mikel Urdangarin

"Azula" Mikel Urdangarin azken lana da, hamabigarrena. Formatu berri, hirukote moduan grabatutakoa, baina betiko intimitasunetik kantatuz. "Alde guztietatik udazkena jariatzen duen lana" da "Azula".

Haritzaren bihotza Angel Izquierdo eta Ricardo Ramon

Gertakizun bitxi-bitxi batzuek klima aldarazi dute herensugearen mendian.

Temperaturaren bat-bateko jaitsierak hotzaren hotzez eta ilunpean utzi du lurraldea. Basoa hiltzear dago eta Robin elfo txikia, basoaren zaindaria, bizitza suntsitzen ari den gaitzari aurre egiteko, laguntza eske ari zaie jainkoei. Laguntza jaso bai... baina ez hark espero zuena!

hitzordduak

Otsailaren 1etik 22ra bitarteko

Antzerkia

Emaztegiaren semea. Otsailak 1, ostirala. Ados Teatroa. Tolosa, Leidor. 22.30

Kaldereroak

Kaldereroetako kontzertua. Otsailak 1, ostirala. Tolosa, Udal Musika Eskola. 20.00
Kaldereroen konpartsa. Otsailak 1, ostirala. Hauspoa kultur elkarteak antolatutako kaldereroen konpartsa. Ibarra, San Bartolome plaza. 18.00

Irurako Kaldereroak. Otsailak 1, ostirala. Irurako Kulturuntetik aterata 18.00etan kalejira eta ondoren merienda.

Haurrak

Aiz Orraz elkartaren haur jaialdia. Otsailak 2, larunbata. Tolosa

Santa Ageda

Santa Ageda eskea. Otsailak 4, astelehena. Hauspoa kultur elkarteak antolatutako Santa Ageda eskea. Izaskun auzoan zehar. Ibarra. Anbulatorioetik, 18.30

Kontzertua

Same Old eta Libe. Otsailak 15, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30

Oskorri: Gabriel Aresti Rebitzing. Otsailak 22, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30

Mendizale-tasuna

Lohuosoa-Ossés-era irteera. Otsailak 17, igandea. Alpino Uzturrek antolatuta. Baigura 897 m. Izena emateko: 943 652 789 edo alpinouzturre@hotmail.com.

Zinea

Haritzaren bihotza. Otsailak 17, igandea. Haur zinea. Tolosa, Leidor. 17.00

Ipuin Txokoa

Ipuin Txokoa haur liburute-gian. Otsailak 22, ostirala.

Ingeles Tertuliak

Ingeles Tertuliak. Hiru astean behin (astelehenetan edo ostiraletan, 17:00etatik aurrera),

lagun arteko giroan ingelesa praktikatzeko edo entzuteko aukera. Kafe edo ardo baten bueltan, ingelesez hitz eta pitz, ordu eta erdiko saioak. Hanka sartzeak elkarri zuzentzen ahaleginduz, gai interesgarriez hitz eginez, baina batez ere, mingaina astinduz. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara 943693731 (Olga).

Lizartzako ihauteriak

Otsailak 1, ostirala. 14.15etan eskolak antolatuta mozorro festa eta ondoren Kalejira.

Otsailak 2, larunbata. 07.00etan plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. "Diana" abestuz hasiko da ihauteria. 07.30ean puske-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospeletik. 09.30ean etxe-zahar base-rrian geldialdia gosaltzeko. 12.00etan mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ateritik. 13.30ean ihauteri partaide guztiek kalejira, Arrateko zubitik irtenda. Ondoren Bazkari herrikoia frontoan. 18.00etan gurdi eta mozorroak Joxe Mariko apartakalekuan bilduko dira kalejira plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako

sagardoak eta "Lizartzako talogileak" egindako taloak jateko aukera izango da.

Otsailak 3, igandea. 11.00etan agintari eta dantzariak Meza Nagusira txistulariek eskainitako "Agintari doinuaz" lagundurik. Ondoren hamaketakoa plazan. 12.00etan dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera. 13.00etan Lizartzako Ihaute Dantzak plazan eta Iñakiri omenaldia. 14.00etan ihauteri bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren txaranga, jokoak, zozketa eta 20.30ean plazan "ijittoa" errez ihauterian amaiera.



Manifestazioa

Manifestazioa Seaskako ikastolen alde. Otsailak 2, larunbata, 17.00. Hendaia tren geltokitik.

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbidek diruz lagundua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Aire girotuko instalazioen mutaia	2013.01.28	40
Aplikazio informatikoak aurkezpenak egiteko (Powepoint)	2013.01.30	30
Txirbil-harroketara bidezko prozesuetako espezifikazio teknikoak (adierazpen grafikoa eta ebaketaren teknologia)	2013.02.04	60
FAGOR CNC tornuaren prestaketa eta programazioa	2013.02.04	70
Galdaragintzako produktuen karakterizazioa (SOLID EDGE)	2013.02.18	80
Berokuntza instalazioetako erregulazio automatikoko elementuak (termostatoak, presostatoak...)	2013.02.25	20

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa. Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 1 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Asteazkena, 6 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astelehena, 11 Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra
Larunbata, 2 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Osteguna, 7 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astearte, 12 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
Igandea, 3 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 8 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 13 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
Astelehena, 4 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Larunbata, 9 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Osteguna, 14 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa
Astearte, 5 Etxebeste Jesus M ^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Igandea, 10 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Ostirala, 15 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Albartzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurremendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Rosa Etxarri Tomé
Elikadura eta dietetika

Nafarroa etorb. 14 A • 20400 Tolosa
626 832 705
rosaetxarri@euskalnet.net

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

Etxebizitza

• 90m²-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean. Egongela handia, hiru logela, sukalde, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi eguzkitsu Uzturreko bistekin. 130.000€ . 688887178

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Furgoneta Volkswagen T4 modelo, multivan salgai. 240.000 km. Egoera onean. Kanbio automatikoa. 102 zaldi. 8.000 euro. 609481124

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Egiazkoagoa izan zintezke, baina beti ere zure ardurak onartuz geroz. Negoziakearako gaitasuna agerian utzi beharko duzu, bigarren mailako kontuak alboratuz. Iraganeko egitura zaharrekin apurtzeko gogoz zaude.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Zure senarengan konfiantza izatea positiboa da. Bizitza-egitura berriak erakitzeko momentua izan daiteke, esperantzarako garaia baita. Horrek, duzun bizitza-filosofiaz hausnartzeko aukera emango dizu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Segurtasuna behar duzu, emozio eta ekonomia aldetik. Zure izaeraren molaketa etorriko da. Errotuen dituzun zure ikuspuntuak ere aldatu egingo dira. Gertuko pertsonekin duzun harremana ere aldatu daiteke.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Bikotearekin bizikidetzat hobetzeko garaia. Harremanetan alaitasuna baino ez duzu sentituko. Orokorki zure gizarte-harremanak oso aktiboak izango dira. Zure sentimendu sakonenak kontrolatu eta komunikatzeko gai izango zara.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Arriskuak hartu eta oldarkorki erabakiak hartzen ez badituzu, aurrerapausoa egiteko moduan izango zara. Jarduera eta gatazka askotariko garaia. Nahia eta egin beharrenden arteko oreka topatu beharko duzu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Zure aurpegirik samurrena erakutsiko duzu eta horrek bere eragina izango du bikote harremanean. Maitasunak egunerokotasunetik aterako zaitu. Sormen handiko garai batean murgilduko zara, zure ikuspegia ere zabaldu egingo da.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Hemendik aurrera segurtasunaren bilaketa zure lehen eskakizunetan egongo da. Familia giroan arazo bat baino gehiago sortuko da. Egunean egunekoa bizi beharko duzu. Ahaztuta zenituen iraganeko zenbait kontu azalduko dira.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Irudimenez eta proiektuez beterik zaudete. Adierazteko garaian oso argia izango zara. Zure burua eta ideiak azkar eta bizi arituko dira. Ekitaldiz beterik izango duzu agenda eta horrek jende berria ezagutzeko aukera ere ekarriko duzu.



sagitaris

Azaroak 23-Abenduak 21
Ez itzazu ahaztu zeintzuk diren zure helburu ekonomiko eta laboralak. Zure buruarengan konfiantza izaten ikasi behar duzu. Baliabide ekonomikoak ugaritu egingo zaizkizu. Buruan dituzun proiektuak gainera, nahi bezala aurrera eramateko gai izango zara.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Egunerokotasuna irmotasunez bizi eta geroaldiari esperantzaz aurrera egin iezaiozu. Zure komunikaziorako abileziaz balaitzen bazara, espero ez duzun zerbaitekin topo egingo duzu. Jende berriarekin harremana sortzeko beharrez zaude.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Helburuak eskuratzeko estrategia berriak landuko dituzu, hala ere, zuhurtziaz jokatu eta behar baino lehenago ez itzazu besoak jaso. Zure buruarengan duzun konfiantzak aurkezten diren oztupoak gailentzen lagunduko dizu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Zure buruarekin duzun harremanaz seguru zaudete eta horrek besteekin ere harreman sana izaten lagunduko dizu. Bestalde, lan-giroan gogoz aritu beharko zara, bestela lana kezka iturri bihurtuko da.

IÑAUTERIAK 2013



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

Elbarrena industrialdea 72-1
Telf: 943 88 82 32 - Zaldibia

jaiak@jaiakdenda.com
www.jaiakdenda.com



IBARRA

Euskalerrria 18-1

**AZKENEKO
DUPLEX-A
SALGAI!**
118M²
OSO EGUZKITSUA

**2 LOGELA
2 KOMUN
165.000 €-TIK**

**3 LOGELA
2 KOMUN
206.000 €**

Kalitatezko materialak, diseinuko sukaldez ekipatua. garajeak ere aukeran informatu zaitez!



**ETXEBIZITZA
BIFAMILIARRA
270.000 €GATIK**

ALTZO

